

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko ekainaren 14a

*



Irratiak Arantzan euskaraz

■ Euskalerrria Irratiak Burlatako Hilarion Eslaba ikastetxeke kiroldogian bere afaria ospatuko du gaur. Badu zer ospaturik Iruñeko eta Iruñerrirako den irrati honek. Berriki, hain zuzen, antena berria jarri du Erreniegako gainean, nahiz eta oraindik martxan ez dagoen. Euskalerrria Irratiak bere besta ospatzen duen honetan, atzera egin dugu den-

boran Nafarroako euskarazko irrategintzaren hastapenak aurkitu nahian. Eta hastapenez hitz egiterakoan, ezinbestekoa da Esteban Irigoienen izena aipatzea: Arantzako apaiz zela, han sortu baitzuen 1963. urtean euskaraz aireratzen zen irrati. Ez zen bakarra, Berueten eta Iruritan ere antzeko emandegiak sortu ziren. ■

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Zineman haur irandar baten gora-beherei buruzko pelikula minimalista eta liluragarri bat ikusi ondoren taberna batean sartu gara, inolako trantsiziorik gabe Teherango kaleetatik lokal klimatizatu modernora pasaz, eta jateko zerbitu eskatu dugu. Dentistaren kontsultan bezala, Dire Straits taldearen abestirik ezagunenetako bat entzun daiteke. Zerbitzariak, «ongi egina nahi al duzue?» galdetzeko erabiliko zukeen tonu berberaz, barkamena eskatu du. «Barkatu, baina gaur itxita dago sukaldaria, eguerdian sukaldaria bertan hil baita», eta irribarre zabal bat erakutsi digu. Ondoren, edariak jarri ditu eta musikaren bolumena igo du. Igande bateko ilunabarra da eta oso animaturik dago taberna. Gehienek jateko zerbitu eskatu dute, eta zerbitzariak istorio berbera kontatu die bezero guztiei, telebistako

Sukaldaria hil da

partiduaren emaitzaren berri ematen ari bailitzen. Ez dago deus berorik, baina barran pintxo batzuk ikus daitezke, eta pentsatu dut pintxo horietakoren bat hildako sukaldariak prestatu duen azkena izan daitekeela, beharbada nire ondokoa jaten ari dena. Ni ere goseak nago, baina barnean zerbaitek kalera, beste taberna batera bultzatzen nau, eta ez da pintxo horiek hilik dagoen pertsona batek prestatu dituelako, baik eta guzti honetan zerbitu obszenoa ikusten dudalako, ez zait gustatzen nola azaltzen duen zerbitzariak sukaldariaren heriotza, ez dut gustokoa bezero batzuen aurpegietan islatzen den morboa, eta Dire Straits-en kantak ez dira nire ustez egokienak horrelako momentu batean eta ordu batzuetarako besterik ez bada ere itxita egon beharko lukeen toki batean. Ez naiz atzo goizean

jaiola eta badakit negozioko aurrera segitu behar duela, bizitzak jarraitzen duela eta abar, baina inondik ezagutzen ez nuen sukaldari anonimoaren heriotzak, edo, hobeki esanda, honek bere lagunaren artean izan duen garrantzi eskasak hunkitu nau eta bururatu zait biharamunean kanposantuan bere lankideak ez direla izanen, taberna batek ezin baititu bere ateak itxi. Agian hobe da horrela, zu hil ondoren *Sultans of swing* edo antzeko abestiren bat jartzten duen kamareroak ez baitu merezi lurperatzen zaituztenean bertan izatea. Azken urteetan hil diren zerbitzari eza-gun guztiez oroitu naiz eta pintxorik ez jatea erabaki dut. Zerbezak ere ez ditugu ordaindu eta barra gainean utzi alde egin dugu. Sikiera jazz melodia dotereren bat jarri balute sukaldariaren omenez... X

KONTZERTUAK

Gares: Funda-Mental aretoan kontzertua eskainiko du bihar Rosendok, gaueko 11.00etatik aurrera. Sarrerak 1.800 pezeta balio du bertan erosiz gero eta 1.500 pezeta aurretik erosita.

Atarrabia: Koma eta Estigia taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 14, 22.00etatik aitzina herriko gaztetxean.

Zizur Nagusia: Luis Miguel Alonso tenoreak eta Marisol Bel piano joleak kontzertua eskainiko dute gaur Kultur Etxean, arratsaldeko 8.00etatik aurrera.

Barañain: Ana teresa Rodriguez eta Carolina Landiscini piano eta biolontxelo joleak kontzertua eskainiko dute asteazkenean, hilaren 19an, Luis Morondo Musika Eskolan. Arratsaldeko 8.00etatik aurrera.

ZINEMA

Abartzua: Udaberriko Biraren egitarauaren barruan, *El libro de la selva* filmea emango dute pilotalekuan, gaueko 10.00etatik aurrera.

Iruñea: Emakumea eta Zinema Erakustaldiaren barruan, *Antonia* filmea ikusi ahal izanen da gaur Golem zinemetan, goizeko 10.00etan eta arratsaldeko 8.00etan. Lehenago, *Blanca o la luna* laburmetraia botako dute.

ANTZERKIA

Etxalar: Udaberriko Kultur Egunak egitarauaren barruan, Azkona taldeak bere emanaldia eskainiko du igandean, arratsaldeko 2.30etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Margoerti tallerreko ikasleek lanak Jesus Mari Etxean (San Agustin kalea, 21) ikusgai izanen dira uztailaren bira arte.

Etxalar: Udaberriko Kultur Egunak ospatzen ari direla, herriko eskolako haurren eskulan erakusketa ikusgai izanen da igandean zehar herrian.

Iruñea: Ricardo Laspidearen erakusketa Pintzel galerian ikusgai izanen da hilaren 28ra arte.

Iruñea: Nestor Basterretxearen lanak ikusgai dira Lekune galerian, uztailaren 3a arte. Asteartetik larunbatera ikus daiteke, arratsaldeko 7.00ak eta 9.00ak bitartean.

LEHIAKETAK

Iruñea: Sanfermin Txiki jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deia egin du Nafarroa Auzoko Jai Batzordeak. Orijinalek Din A-3 tamaina izan beharko dute, eta egileek irailaren lehena baino lehen aurkeztu beharko dituzte Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartearen (Aldapa kalea, 5). Irabazleak 35.000 pezeta patrikaratuko ditu.

nafarkronika

Patxi Larrion

Aldaketak Erreniega aldean

Iruñerria, betidanik, mendiz inguraturik ezagutu dugu, askoren ustez mendiak baino gehiago muinoak badira ere gure eskualdea hesitzen duten gainak. Hori-tako batek, Erreniega mendilerroak, naturaren higadura baino gizakion eragina jaso izan du azken urteotan. Duela hamabost bat urte errepidearen zabaltze lanak egin ziren. Estellerrirako bidea maiz hartzen genuenok errepide bazterretan jende multzo andanak kausitzen genituen lanek irau zuten bitartean. Gerra Zibilean Iruñean fusilatu eta han lurperatutako familiarren bila nonbait, arrastoen bila. Berrogei urteren bueltan, lurrak bertsio ofizialak gezurtatu zituen.

Hilerri bihurtu zuten errepide horretatik hurbil, Erreniegan beti ere, milaka nafar hil zen orain dela bostehun urte inguru; babesleku izan behar zuena, estakuru bilakatu zen. Hildakoak bertan lurperatuak ote dauden ezin jakin, oroigarri gisa eskultura erraldoia paratu berri da, hil honen amaieran ospatuko den festan

inauguratuko dena.

Bi kanposantu hauen artean haize errotan ilara, etorkizunean energia indar nagusia izanen den sistema. Dorre hauek, arestian aipaturiko hesia garaiago jarri dute. Kasu honetan, kalte ekologikoa onargarria omen da, baina bestelako egoera dugu Potasas aldean: han ez dira gorpuak lurperatuko, hondakin toxikoz mukuratu utzi nahi dituzte galeriak. Inoiz horrek sortu kalteak lurperatuko al gaitu?

Bada aldaketa gehiagorik Erreniega alde horretan, energia indarrarekin harreman zuzena duena, gure iraganaren oroigarri baino areago etorkizuneko apostua dena, hesiekin zerikusirik ez duena. Mugatu ordez batu egiten gaituen eraikin bat dugu hizpide. Aurki, Euskalerrira Irratiak, Iruñerriko zein Nafarroako beste eskualdeetako euskaldunon zerbitzuan, martxan jarriko du antena berria. Maiz frogatu izan dugun gisan, praktika dugu bidelagun. Gau honetan, Burlatan, horrekin guztiarekin gozatzeko aukera dugu. Anitz urtez.



asteke pertsonaiak



Xabier Sanchez
Intsumiso marika

■ Zizur Nagusiko intsumiso gazte honek *intsumiso marika* aldarrikatu zuen joan den asteartean Iruñeko Entzutegiko 3. Epaitegian. Bertan, fiskalak bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra eskatu zuen haren aurka, soldadutza egin ez duela eta. Sanchezek bere *marika* izaeran oinarritu zuen defentsa: «*Marika bazara, arau heterosexualen aitzinean intsumiso zara, eta, beraz, intsumiso zara halaber homofobia bultzatzen duten erakunde guztien aurrean. Armada, jakina, erakunde horien artean dago, eta horren aitzinean intsumiso izan behar dugu. Epaiketa egin zuten bitartean, 50en bat lagunek pankarta zabaldu zuten Entzutegiaren pa-rean.*



Miguel Sanz
UPNko bozeramailea

■ MIGUEL SANZ, UPNko bozeramailea, ia kanporatu zuten Parlamentuak asteazkenean egin zuen plenotik. Nafarroa-EAE lankidetzaren hitzarmenaren eztabaida zela eta, Lola Egurenak Parlamentuko lehendakariak hiru abisu eman zizkion Sanzi ez zegokionean hitz egiteagatik. Hala ere, UPNkoak ez zion kasurik egin eta beste alderdietako bozeramaileei erantzuten saiatu zen. Egurenen plenotik kanporatu egingo zuela ohartarazi zion orduan eta Sanz ezinbestean isildu zen. UPNko lehendakariordeak alferrik jardun zuen Iruñeko eta Gasteizko gobernuek elkarlan iraunkorrerako hitzartu duten akordioaren kontra, PSN-CDN-EA koalizioak aurrera atera baitzuen Iuren laguntzaz.

ahaztu gabe!



URBASAKO AUTO IGOERA

Urbasa: Igande honetan, azken hogeitun urteetan bezala, Urbasako auto igoera egingo dute. Beste ekitaldietan bezala, arrakasta handia lortu du aurtengo deialdiak ere: antolatzaileen arabera, 70 pilotu inguruk hartuko dute parte igandeko igoeran. Izena emateko epea, hala ere, zabalik da oraindik; beraz, baliteke partehartzaile gehiago izatea. Ibilbideari dagokionez, betikoa izanen da, denetara 6,726 kilometro.

Dagoeneko igandean Urbasan izanen direla ziurtatu duten gidarien artean, Aitor Zabaleta, Javier Azkona rally gidaria eta Gerard de la Casa dira aipagarri. Azken honek, hain zuzen, Urbasako igoeraren iazko ekitaldia irabazi zuen. Pantxo Egozkue gidari atarrabiarrak, berriz, ez du Urbasako igoeran parte hartuko aurten. Jakina denez, autoen munduari agur erran zion joan den denboraldia bukatuta Egozkuek. Atarrabiakoa, hala ere, ez da esku hutsik itzuli etxera, bi aldiz irabazi baitu Europako txapelketa Mexikon jai eta Atarrabian bizi den gidari honek.

adi!

Euskalerrira Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaitetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Bera

Altzateko bestak asteburuan

Bihar, herriko gazteek eta Udalak antolatuta, kontzertua izanen da

Berako Altzate auzoak gaurtik igandera bitartean ospatuko ditu azken urteetan bezala bere bestak. Iparraldeko Sustraiak taldeak kontzertua eskainiko du gaur, eta bihar, berriz, eguerdian altxaferoa bota ondoren, Altzateko Milia eginen dute auzokideek. Igandean, bukatzeko, herri bazkaria eginen dute Altzate auzoan.

Jon Abril / Bera

BERAKO Altzate auzoak gaurtik igandera bitartean ospatuko ditu bestak. Ekitaldiak gaur bertan hasiko dira, arratseko hamaike-tan Puy ostatuan egingo den kontzertuarekin. Bertan izango dira Iparraldeko Sustraiak taldekoak. Horien ondotik, hamabi eta erdietan Zizka ostatuak hartuko du bertze musika emanaldi bat, Donostiako Amor a traicion taldearen eskutik. Gaurko egitarauari bukaera emateko, Izaskun eta Amaia dantzariak ariko dira kontzertuaren ondotik.

Bihar, larunbata, izanen da egunik handiena eta jende gehien bilduko duena. Eguerdiko hamabietan, altxaferoa bota eta erraldoiak, buruhandiak eta txaranga ibiliko dira Altzateko plaza eta karrikan. Arratsaldeko lauretan, haurrentzako jokoak prestatu dituzte plazan, eta leku berean baina zazpitan, herri kirolen emanaldia izango da. Ordu bat geroago, auzoko besten ezau-garririk nagusiena bilakatu den Altzateko Milia korrikalarientza-



Gaur gaueko 11etan kontzertua eskainiko du Sustraiak Puy ostatuan.

ARTXIBOKOA

Bihar ospatuko da herriko gazteek antolatu eta Udalaren laguntzaz prestatu den kontzertu handia. Arratseko hamarretatik aurrera, lau talde ariko dira: Tapia eta Leturia Band, Xabier Montoia eta bere taldea, Kashbad eta Biserh beratarrak

ko proba izango da ikusgai. Egunari akabera emango diote txaranga eta zezen suzkoak, hamabietatik aitzinera.

Igandean, herri bazkaria egin-

go dute auzotarrek eguerdiko ordu bietan, eta zazpitan, dantzaldia izanen da Kristina eta Amaiaeren eskutik Altzateko plazan. Bederatzi eta erdietan, be-

rriz, zezen suzkoarekin emanen diote agurra aurtengo beste.

Kontzertu handia bihar • Bertalde, bihar ospatuko da herriko gazteek antolatu eta Udalaren laguntzaz prestatu den kontzertu handia. Arratseko hamarretan emanen zaio hasiera kontzertuari, eta bertan lau talde ariko dira: Tapia eta Leturia Band, Xabier Montoia eta bere taldeak, Kashbadek eta Biserh beratarrek osatzen dute egitaraua. Udaltzeko plazan izango da eta sarre-rak 500 pezeta balioko du. X

Aribe

Mikel Laboaren kontzertua bihar Bailararen Etxean

■ Aezkoa, Erroibar eta Aurizberriko jendea biltzen duen Etxabarrengo Kultur Elkarteak antolatu du


Alberto Barandiaran / Iruñea

AEZKOA-KO Bailararen Etxeko ganbaran euskal musikak eman duen egilerik garrantzitsuenetako bat entzuteko aukera izango da bihar, larunbata, 22.00etan hasita. Etxabarrengo Kultur Elkarteak antolatuta, Mikel Laboaren kontzertuak segida emango dio urtean zehar talde horrek antolatu dituen mahain-guru, liburu aurkezpen eta so-lasaldiei.

Aezkoa, Erroibar eta Aurizberriko jendea biltzen da Etxabarrengo Kultur Elkartearen. Taldea inguru honetako bizitza kulturala berpiztearren sortu zen, eta lanean daramatzen bi urte haue-tan gauza franko politak eraman ditu alderdira. Chiapasko egoe-rari buruz mintzatzeko Rodolfo Izal apaiza egon zen, kasurako, Aurizberriko Liburutegian, eta

Abajo las quintas Txalapartak argitaratutako liburuaren aurkezpena egin zezan gonbidatu zuten toki berean Jose Mari Esparza tafallarra. Itoitzi buruz debata egin zuten Jose Irigibel CDNko senadoreak eta Patxi Gorraiz Koordinakundeko kideak, eta beste bi mahainguru prest daukate ahal bezain pronto egiteko. Batean euskara eta erdararen gaia jorratuko dute, eta bestean pilotari buruz hitz egiteko Patxi Eugi eta Fernando Arretxe pilotariak eramango dituzte. Baina azken mahainguru hori atzeratu egin da, bi pilotariak ezingo direlako joan.

Larunbateko kontzerturako sarrerak nahi dituenak Irati Irratira -76 43 76 telefonoa- edo elkartera -79 04 29- deituta gorde ditzake alde zuzenetik. Aribeko Bailararen Etxeak 300 bat lagunentzako tokia badu. X



Ariben ariko da bihar Mikel Laboa.

ANDER GILLENEA

Arrotxapea

Arrotxapeako jaiek asteburu honetan dute egitaraua lehertzeaz

■ Unai Iturriaga eta Jon Maiarekin bertso-afaria izango da gaur

Erredakzioa / Iruñea

ASTEBURU honetan izango dira astelehenean hasi ziren Arrotxapeako jaietako egun nagusiak, gaur, bihar eta etzi pilatu baitira Jai Batzordeak antolatu duen egitarauko ekitaldirik azpimarragarrienak. Gaur, esate baterako, Rotxapea elkartearen Unai Iturriaga eta Jon Maia bertsolari-ekin egingon den bertso-afaria izango da eguneko ekitaldirik erakargarrienetakoa. Lehenago, 18.00etan, play-back-a izango da Juslarotxan, eta ordubete geroago Ekitza eta Pumukis Banda txarangek alaituko dituzte auzoko kaleak, Errotazarreraino. Hortxe izango da itxafueroa, 20.00etan, eta ondoren, Aita Barandiaran enparantzan dantzak izango dira Duguna taldearekin. Zezen suzkoak, Iratxo taldearekin dantzaldiak eta galtzontzilo eta gal-tzen lasterketak osatuko dute egungo egitaraua.

Bihar, 09.30etan txokolate jana izango da, eta eguerdian San Fermin ikastolako dantzari txikiak izango dira San Pedro plazan. 21.30etan gazte afaria egingo da txosnetan, eta 22.30etan zinema ikusi ahal izango da Aita Barandiaran plazan.

Igandean, amaitzeko, di-nak hasiko dira goizeko zortzietan, eta 14.00etan saiheski jana egingo da kiroldegian. Bukatzeko, Balerdi Balerdi-ren kontzertua izanen da. X

Etxarri-Aranatz

Kultur Etxeak oinarrizko grafiti ikastaroa antolatu du

Erredakzioa / Iruñea

ETXARRI-ARANAZKO Auzotegi kultur etxean oinarrizko grafiti ikastaroa antolatu du. Hamabost orduko iraupena izanen du eta datorren ostegun-ean, ostiralean eta larunbatean izanen da. Ostegun-ean eta ostiralean, arratsaldeko zortzietatik gaueko hamarrak bitartean eginen dute, eta larunbatean, berriz, goizez eta arratsaldez. Ikastaroaren edukia dagokionez, grafitien teoria eta diseinua aztertuko dute partehartzai-leek. Halaber, arlo praktikoa ere jorratuko dute ikastaroan zehar.

Ikastaroan parte hartu ahal izateko, 1.500 pezetako matrikula ordaindu beharko dute interesatuek. X

Esteban Irigoien, apez esataria

Nafarroako euskarazko irratigintzan aitzindari izan den Arantzako Irratia sortu zuen 1963an

Nafarroako euskarazko irratigintzak Arantzako du sorburuetako bat. 1963. urtean, irratia sortu zuen bertara apaiz ailegatu zen Esteban Irigoienek. Iruñeko agintariak aurka izan zituen beti, baina herriak, berriz, gustura entzuten zituen bere uhinen bidez aireratutako kontuak. Euskalerrira Irratiak bere besta ospatzen duen egun honetan, euskarazko irratigintzaren beste garaia ekarri nahi izan ditugu gogora.

Edurne Elizondo / Iruñea

EUSKALERRIA IRRATIAK afaria ospatuko du gaur Burlatako Hilarion Eslaba ikastetxeko kiroldegian. Bertan, Larreko saria emanen diote Sagrario Aleman euskaltzaleari. Zortzigarren denboraldian diharduen Iruñeko eta Iruñerriko den Euskalerrira Irratiak entzuleengana hurbildu nahi du besta honen bidez. Badu, gainera, zer ospatu. Alde batetik, gero eta ordu gehiago emititzen du eta, bestetik, Erreniegako gainean antena berria jarri dute irratiko ideek, nahiz eta oraindik martxan ez dagoen.

Zortzi urte hauetako ibilbidea ez da erraza izan. Administrazioaren laguntza eta baimenik ez dute izan baina, hala ere, aurrera egin dute. Nafarroako uhinen esparruan, dena den, ez dago bakarrik Euskalerrira Irratia. Hor da Iruritatik emititzen duen Baztan aldeko Xorroxin irratia, baita hainbat herritako udal irratia ere, Karrape Leitza, Aralar Irratia Lekunberrin, Irati Irratia Aezkoan...

Irrati hauek guztiak euren mezuak aireratu baino lehen ere, sortua zen euskarazko irratigintza Nafarroan. Elizaren eskutik eman zituen, hain zuzen ere, lehen pausoak. Esteban Irigoien apez baztandarra dugu irratia lanetan aitzindarietako bat. Berroetan jaioa, Nafarroako hainbat herritan barrena eman zituen bere apez urteak Irigoienek: Luzaiden, Lizarran, Nabaskozen eta Arantzako, besteak beste. Azken herri honetan zortzi urte eman zituen, eta bertan sortu, zuen Arburua aitarekin batera, Arantzako Irratia. Berueten ordurako irratia jarria zuen Lasarte aita, eta hari erositako magnetofonia izan zen Arantzako irratia izan zuen lehenengoa.

«Gureari irratia deitzeak ere lotsa ematen dit». Halaxe hasi zaiugu Esteban Irigoien mintzatzen. Jubilatua dago egun eta arrebarekin bizi da Iruñean. Berroetara, hala ere, maiz egiten du ihes. «Xorroxin Irratia entzuteko aukera izaten dut orduan, polita benetan. Baztani buruz hainbeste berri eta xehetasun...». Esteban Irigoienek Iruritan ezagutu duen lehen irratia ez da, baina, egungo


Xorroxin. «Gure garaian, bazen Iruritan irratia bat, dotorea, ongi jarria. Euskaraz emititzen zuen, baita Beruete irratia eta guk geuk ere. Bakarrak ginen orduan». Bakarrak izateagatik, agian, arazo faltarik ez zuten inoiz izan. «Milaka salaketa jarri zituzten gure aurka. Apezpikua eta gobernadorea ere aurka genituen». Arantza Irratiak bost urteko ibilbidea egin zuen, dekretu batek legez kanpoko ziren irratia guztiak itxiarazi zituen arte, Irigoienena tarte.

Bi mikro, tokadisko zahar bat eta magnetofoni are zaharragoa • Esteban Irigoien baztandarra 1962. urtean ailegatu zen Arantzara, eta urtebeteren buruan sortu zuen bertako irratia. «Hamabi mila duro kosta zitzaigun dena jartzea. Guk zentimorik ere ez genuen baina Etxalarko apezaren amak aurreratu zigun dirua. Ondoren, Diputazioan lagun genituen Urmeneta eta on Amadeo Marcok eman ziguten gastatutakoa eta emakume hari itzuli ahal izan genion», gogoratzen du Esteban Irigoienek.

Apezaren etxean jarri zuten emandegiak ez zuten gauza gehiegirik behar: «Bi mikrofono, tokadisko zahar bat eta magnetofoni are zaharragoa. Antena, nik neuk jarri nuen ezkildorrearen puntan. Orain gutxi arte, inor ez da ausartu handik kentzera». Gutxi baina nahikoa.

Arantzako apezaren lanak laster eman zuen fruitua, eta herritarrek bizkor aski eskaini zioten euren atxikimendua Arantzako Irratiari. Astean sei edo zazpi bat orduz emititzen zuten, eta etxetan erne zituzten irratia aditako Arantzako biztanle guztiak. «Programazio xumea genuen», dio Irigoienek, «baina herritarrek hagitx maite zuten, ez zuten deus galtzen». Egutero, arrosarioa errezatzen zuten arratsaldean eta, ondotik, klase guztietako iragarkiak aireratzen zituzten: «albaterra bihar etorriko dela, edo tipula saltzailea etzi herrian izanen dela...». Horretaz gain, asteazken eta igandeetan saio bereziak prestatzen zituzten.

«Asteazkeneko saioa zen herritarren gogokoena, zalantza izpirik gabe», azaldu digu baztan-



Esteban Irigoienek sortu zuen Arantzako irratia.

JOXE LACALLE

darrak. Saio horretan, egunkarietan jasotako berriak aireratu zituzten. «Garai hartan, guk genituen herrian ziren egunkari bakarrak». Nafarroako eta Euskal Herriko berriak ezezik, Espainiakoe eta nazioartekoe ere bazuten lekuri Arantzako irratian saioan. Kirolak ere oso garrantzitsuak ziren alpatu saioan, eta Esteban Irigoien aizkora eta bestelako apustu frankotan ibili zen Ingra motako magnetofolarekin saio guztiak grabatzen. «Handi-handia zen, Perurenak berak ez luke altxatuko. Herriko mutil batzuk hartu eta kamioi batean eramaten genuen alde batetik bertezera».

Aizkora apustuak ez ziren izan,

hala ere, Esteban Irigoienek grabatutako bakarrak. Bertso saio anitz eman zituen Arantzako irratia. «Donostiako Anoetara joan nintzen behin, nere Ingrarekin, Mitxelena, Lazkao Txiki eta beste batzuen saioa entzutea. Hamaikak aldera iritsi nintzen Arantzara eta berehala jarri genuen saioa. Biharamunean, dotrinara etorritako haurrei galdetu nien ea saioa entzun zuten, eta, ehun haur baldin bazeuden, ehun esku altxatu ziren».

Berriek eta kirolak ezezik, musikak ere leku garrantzitsua betetzen zuen Arantzako irratiari. «Denetarik jartzen genuen, baina euskalduna batez ere, akordeola eta txistua. Iparraldera joan behar izaten genuen, noski, halako diskoak erostera». Musika klasikoa ere askotan jartzen zuten, eta Irigoienek aipatzen duenez, «harri garria bada ere, hori maite zuten gehien. Jende langilea zen, mendizaleak eta artzainak, baina musika klasikoa biziki maite

«Hamabi mila duro kosta zitzaigun irratia jartzea. Ez genuen zentimorik baina Etxalarko apezaren amak utzi zigun dirua»


«Milaka salaketa jarri zituzten gure aurka. Gobernadorea eta apezpikua ere kontra genituen»

Nafarroako euskarazko
irratigintzaren hastapenak

zuten». Herritarrek, hain zuzen, bazuten nahi zuten diskoa eskatzeko aukera 10 pezetaren truke. «Igantzeko Meza Nagusiaren ondoren egiten genuen. Meza emititzen genuen lehendabiziko eta gero jendeak eskatutako diskoak paratzen genituen. Hamarna pezeta disko bakoitza, hiru mila eta lau mila pezeta biltzen genituen egun askotan».

Apezpikua eta gobernadorea

aurka • Arantzako Irratiak herritarren onespina jaso bazuen ere —Arantzan ezezik, Igantzi, Etxalar, Lesaka eta Berako baserrietan ere entzuten zen—, kontrako iritziak ere izan zituen. «Iruñetik iritsi zitzaizkigun protesta guztiak, apezpikua eta gobernadorearen ahotik. Debekatu zegoela eta, beti aritu ziren mehatxuka». Lesaka eta Berako apezkek ere, nonbait, ez zuten begi onez ikusten Arantzako irratia. «Berri asko ematen genuen guk baina, antza denez, apezak ezin omen dira politikan sartu». Euskara hutsean emititzeak ere, noski, izan zuen Iruñeko agintarien jokabidean zerikusirik. Irigoienek, dena dela, ideiak argi zituen eta inoiz ez zuen amore emateko asmorik izan: «Apezpi-



Zortzi urte eman zituen Arantzan baztandarrak.
JOXE LACALLE


«Irratia itxi zutenean, Arantzako herritar guztiak altxatu ziren, edozer gauza egiteko prest»

kuari gutun bat idatzi nion eta erran nion, Ingalaterran ingelesez mintzatzen badira, nere herrian, Euskal Herrian, euskaraz mintzatuko nintzela ni. Eta Arantzan denak ziren euskaldunak».

Polizia behin baino gehiagotan egon zen Arantzako irratiaren. Lehendabiziko aldia irratiaren itxeko agindu zioten Esteban Irigoieni Arantzara joandako bi polizia, baina baztandarrak berean jarraitu zuten, apezaren etxetik euskaraz emititzen. Hainbat urtetan ez zen besterik gertatu baina 1968. urtean Polizia itzuli zen Irigoienen irratiara. «Guztia Iruñera eraman behar zutela erran zidaten eta nik ezetz. Egunera mozteko nuen aizkora hartu eta bertatik deus atera aurretik dena txikituko nuela erran nien. Beldurtu ziren nonbait eta irratiaren zegoen guztia utzi zidaten». Irratia, baina, itxi egin zuten. «Antzezpena ematen zuten, zere monia handiz egin zuten dena. Ateak lakratu ere egin zituzten».

Arantzako herritarrek, berria jakin bezain laster, altxatu egin ziren. «Irratia berriz zabaltzeko edozein gauza egiteko prest ziren: dirua eman, Iruñera joan, edozein gauza». Ezin izan zuten, ordea, deus egin.

Arantzako irratiak 1968. urtean uhineratu zituen bere azken mezuak, Nafarroan zeharreko gainerako irrati klandestinoek bezala —hamar bat parrokiatan jarri zituzten irratiak Nafarroan zehar, Irurita, Beruete eta Arantzakoa bakarrik euskaraz—.



Arantzan da oraindik Irigoienek erosi zuen magnetofoi zaharra.

MARTIN GOIKOETXEA

«Herria altxatu nahi genuen irratiaren bidez, herritarrek elkartu, informatu eta baita kulturatu ere»

«Funtzio garrantzitsua bete zuen irratiak» • «Lotsagarria izan da euskarazko irratigintzan egon den hutsunea», azpimarratzen du Esteban Irigoienek. Arantzako irratiak poliziak nola ixten zuten ikusi behar izan zuten eta hori une zaila izan zen berarentzat, «irratia jendearen artean lortu zuen oihartzunagatik batez ere. Funtzio garrantzitsua bete zuen irau zuen bitartean eta Arantzako herritarrentzat beharrezkoa zen».

Arantzako irratiak eta beste hainbeste Espainiako Gobernuaren dekretu baten bidez itxiarazi zituztenekoa ezezik, bizi izan ditu euskarazko irratigintzak beste hainbat une latz Nafarroan. Hamarkada honen lehen urteetan, adibidez, Espainiako hiru kate handiek Nafarroan zizuten euskarazko saioei muzin egin zieten kate horietako agintariek.

SER izan zen aurrena, COPE ondotik eta azkenean, 1994ko

otsailean, hamar urteko historia zuen Espainiako Radio Nazionaleko Txuri ta beltz irratsaioa desagertu zen. Saio horietan aritutako kazetariek axolagabekeriari egotzi zioten euskara hiru kate horietatik desagertu izana.

Irrati handien euskarazko saioen desagerekin batera, dena den, udal irratiak ugaltu egin direla ezin ahaztu, nahiz eta, gehienetan, arazo ekonomiko larriak izan. Aukera, beraz, ez da makala, hasieran aipatu bezala. Baliabide urriak dituzte gehienek, baina ezin da ahantzi herritarren albisteak biziki estimatzen dituztela tokian tokiko herritarrek.

Ezberdinak dira oso egungo eta Esteban Irigoienek garaiko irratigintza, baina guztiak badute ezaugarri bat, euskara, alegia. «Eguneko euskarazko irrati bidea ireki genien neurri batean, eta garai hartan, begi batzuk ere ireki genituen».

«Herria informatu eta kulturatu»

ESTEBAN IRIGOIENEN denen eskutik abandonatua zegoen herria aurkitu zuen 1962an Arantzara ailegatuta zenean. 125 baserri osatzen zuten Arantza, mendietan zehar barreiatuta. Herriko mutilak mendian ibiltzen ziren gehienak, eta neskatxak, Hendaian zerbitzari. Arantzan gelditzen zirenak, berriz, artzainak ziren gehienak. Arantzara ailegatuta, Arburua aita —1969. urtean hil zen Mendaur mendirako bidean— izan

zuen lankide eta lagun. Arantzara iritsi bezain laster, helburu argia zuen buruan Esteban Irigoienek, hau da, «erlijio gaie-tatik kanpo, herritarrek harremana izan, guztiak elkartu». Horregatik erosi zion oraindik Arantzako apezaren etxean den magnetofoi zahar eta txikia Lasarteri, Berueteko apezari. «Jende maitagarria zen Arantzakoa, langilea eta jatorra, eta nik zer edo zer egin nahi nuen haien alde, inork ez baitzuen egiten».

Herria altxatu, elkartu eta kulturatzeko asmoz hasi zen, beraz, emititzen Arantzako irratiak. «Arantzara iritsi nintzenean, haurren % 30 ez ziren eskolara joaten. Denon artean, % 100 joatea lortu genuen. Hamar urterekin hasten ziren eskolan ni iritsi nintzenean, baina lan egin genuen eta azkenean, lau urterekin biddaltzen hasi ziren gurasoak. Ez zen erraza izan, baina, ni Arantzan egon nintzen zortzi urteetan 24 maistra egon ziren he-

rrian», gogoratzen du Esteban Irigoienek. Eta lortu zuten neurri batean behintzat herria altxatu eta kulturatzea. «Kooparatiba eratu genuen, baserrietara joateko pistak egin genituen eta haurrentzako ere jantokia egin genuen eskolan. Dena irratiari esker lortu genuen, elizako predikuak ez zuten sosik ere balio». «Oroitzen naiz, Garizuma egun batez, herriak egia behar zuela jakin erran niela elizan bildutakoak», gogoratzen du

Irigoienek. Izan ere, musika, kirolak eta berriak ezezik, historiako gaiak ere aztertzen zituzten Arantzako irratiaren, «herria informatzeko asmoz». «Egia jakin behar zuten jendeak, eta Espainiako gerraz hitz egin nien, ez guri erakutsi diguten bezala». «30 urtetan ez dugu libertaderik izan», baina hala eta guztiz ere, garai-ko agintarien esanei muzin egin eta aurrera egin zuten zortzi urtez Arantzako irratiak, Irigoienek zuzendaritzapean. X

Xanti Begiristain

Hitz hutsak baino gehiago

■ Goiburu hau ez da hor bukatzen. Osorik agertzeko honako hauxe jarri beharko nuke, alegia, «Hitz hutsak baino zerbait gehiago Euskal Herrian bidezko bake prozesu baterako». Pentsatzen dut, dagoeneko, zuetariko askok jakingo duela zer den esarea hori, baina, badaezpada ere gogoraziko dut horixe dela Elkarri gizarte mugimenduak aukeratu duen leloa, Bilbon, ekainaren 22an eginen duen manifestaldirako.

Goiburu hori hartuta, nik uste dut azpimarratu behar direla hiru kontzeptu edo ideia, hots, «Hitz hutsak baino gehiago» alde batetik, «bidezko» bestetik, eta «prozesu baterako» azkenik.

Zergatik uste dudana hiru kontzeptu eta ideia horiek direla giltzarria? Berehala saiaturko naiz azaltzen. Hona hemen:

eztabaidak daude; gauzak ez doaz ongi. Beste maila batean, hiritarren arteko istiluak eta konfrontazioak gehiagora joan litezke gaitza enkistatuko balitz.

Datu hauek guztiek oinarri ematen digute pentsatzeko, hemen, gauzak birjarri egin behar direla, aurrerapen handirik ez dela suertatu eta horregatik marko juridiko-politiko, demokratikoki berrikusi, kontsentsuatu eta integratu egin behar da. Gizarte mugimendu honek hori guztia adierazi nahi du esaten duenean «bidezko bake prozesu baterako». Elkarrizketa bultzatu, zuzpertzatu eta dinamizatu egin beharra dago. Horregatik, hain zuzen ere, Elkarri une honetan, besteak beste, lanean ari da hiru esparrutan: a) Gizarte mailan, zortzi bat foro lokalekin, distentsioa eta elkar-



Gaur egun, gure gizartean, nahiko onartua dago gehienetan, elkarrizketa, negoziazioa eta hitzarmena direla biderik egokiena gatazkak konpontzeko. Dagoeneko argi dago ez dela aski bortizkeriak eta indarkeriak salatzea eta kondenatzea soilik. Hemen, Euskal Herrian, gatazka politiko hau, trantsizioa baino lehenagotik ari gara arrastatzen. Orain arte, konponbide salakera guztiek porrot egin dute; arazoak hor eta hemen dirau. Horregatik, hain zuzen ere, Elkarri dio, jadanik ez dela nahikoa hitz hutsekin, edukiak eman behar zaizkiela hitz horiei, gehiago mugitu, busti eta arriskatu egin behar dugula. Euskal Herrian, bortizkeriaz gain, auzi politiko serio eta larria ere badugu, beraz, Elkarrizketak, negoziazioak eta hitzarmenak ezinbestekoak dira.

Oraingo estatusa berrikusi egin behar da: autodeterminazioa, subiranotasuna eta abar; EAE eta Nafarroaren arteko lankidetzaren batzordea, erregioak; Europako markoa; estatuak, monetak eta beste. Hauetan guztietan desadostasun eta

ulertzea lortzeko; b) Maila nazionalen, kontsentsu handiagoa eskuratzeko, eta c) Nazioarteko mailan, Unesco, Carter Fundazioa eta abar laguntza kozkorragoa erdiesteko.

Orain arte Elkarri hiru mobilizapen handi samar gauzatu ditu, eta laugarrenean ere protagonismoa gizarteari eman nahi izan zaio, azken hauteskundearen ondoren, indarra eta aniztasuna demonstratu, homologatu, ekarpenak egin eta aferak birrezartzeko. Proba eta test benetan zaila eta arriskutsua izan da. Inork ez du biziki lagunduko (talde eta erakundeak dagokienez); hortaz, emaitzaren neurria asumitu egin beharko da.

Saiatzen naiz inozoa ez izaten. Hori dela eta, badakit mundu honetan inor ez dela erabat akatsik gabea; hala eta guztiz ere, pentsatzen dut, Elkarri burutzen ari den ekarpena oso interesgarri eta integratzailea dela. Laburbilduz, esango dut uste dudala merezi duela ekainaren 22an Bilbora joatea. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Aboitz lekeitiarra bertsolari ahantzia

■ Ezer guti da Juan-Domingo-Agustin Aboitz Azterrika Zarakondegi Uskola zenari buruz iritsi zaiguna, gutxirako balio digun bere abizen segida osoa ezpada bederen. Jakin badakigu ordea Lekeition sortu zela 1751. urteko apirilaren 3an, eta ber herrian zendu zela 1824. urteko urriaren bigarrenean. Apeztu zelarik, eta nola ez, Eako Jesus parropiako benefiziari sartu zen 1777. urtean, Busturiako bikaritzan, alabaina sosa eskas zatekeen erretoretza txiki hartan sakeleratzen zuena, behin eta berriz auzoetan sarturik ibilja baitzen Lekeitioko kabildokoekin Bedaroko eliz zerbitzuak bereganatu nahian. Zernahi ere Aboitz lekeitiarra gureganatu baldin bada, ez da bere artzai langintzaren inguruetatik izan, utzi zituen hainbat bertso umoretsu-erengatik baizik, ahoz aho zabaldu eta gaurdaino allelatu direnak. Dena dela bertsoegile narea bagenuen ere, etzuen ahalpaldi bakar bat ere bere garaian argitaratu, eta ahozkotatzen mantendu zaizkigun horiek Jose Antonio Uriarte frantxikotarrak bereziki jaso zituen behinola bere *Poesía vascaña dialecto vizcaíno* luzaro argitara atera gabe iraun zuen bilduma zaharrean. Honetan Aboitzen zenbait olerki jasotzen dira, geroantzean Azkue nahiz Onaindiaren bildumetan ere berragertu zirenak. Bere lanik ezagunena *Txanton Pipirri* dugu, Buententura Zapirainek bere operarako abiapuntutzat aukeratu zuena. Nolanahi ere hauxe etzen batere harritzekoa bada Zapirain ere lekeitiarra baitzen (1873-1937), eta ia seguru txiki txikitandik ezagutuko zituen Aboitzen olerkiak. Donostian 1899. urtean estraineiko aldiz eskaini zen *Txanton Pipirri* hau lehendabiziko euskal operatzaile badu Arana Martija euskaltzainak, bertan lehenengo aldiz euskal folkloreak hainbat osagai musikal agertzen zirelako, testua ere euskaraz zegoelarik. Edozein modutan ere Aboitzek ondu zituen bertsoak honakoxeak ditugu:

«Txanton Pipirri emen dago / limosna on bat balego / kantau biar dot / baldin al badot / nik gaur daukadan gosia / errukitzeko jentia.

Iru lagunak ipazterren / apostua egin eben / jango ebela / goiztik gauera / amar erraldeko txala / nerau laugarren nintzala.

Pozez nengoan zoraturik / jateko laurden bat osorik / nere kontuak / beti alangoak / joan zan poza putzura / ametsak oi diren modura.

Lekeitioko kalean / bixigu denbora danean / ogei txixarro / eta getago / eta guztiak gauean / sartzen dodaz sabelean.

Orduan kontentu nago / gauerdia osteradaino / andik gotzera / neure sabela / beti dago gur gur / bartiko afaria agur.

Zabala dodaz gibela / estiak eta sabela / artuko leuke / baldin baleuke / ganbela bete okela / baña hau noiz izango eta da.

Ezta errotan arririk / neure aginak langorik / neure aginak / zatituko leuke / ogi andi bat osorik / balego bigun biguniki.

Nolanahi ere honakoa ez dugu Aboitz lan bakarra, eta *Txanton Pipirri*renaz gainera *Urtareren* eta *Bestelakoak* badaude kantagai: *Belaskilloren kanta*, *Peru Dubako*, *Laitiz*, *Mingua* eta *Eguzkiri* jarri bertsoak, *Bedaronako*: *Canción que Aboitz sacó a una aldeana de Bedarona que la encontró llorando sentada al pie de un árbol porque en Lequeitio le dijo una muchacha que era pecosa*, *Canción de Aboitz a Machango*: *este era un mono - eta Canción de Aboitz a la fuente de Tracamaldi en 1800*. Azken honetan gure apez alaiak honela zioen:

«Portu Lequeitijoco / marinel ondraubac / poztu uragaz vici / biar dozubenac / uric ezarren ura / sarri edan bozu / uragaitic ardaia / orain edango dozu.» ■



Udaberri txapelketako zazpigarren jardunaldiko partida, 1996ko ekainaren 1ean jokatu.

Jesus Perez Reclusa, 2.035 ELOkoa—**Francisco Javier Gamazo**, 1.890 ELOkoa.

1.e4,Zf6; 2.e5,Zd5; 3.d4,Zc6; 4.c4,Zb6; 5.d5,Ze5.

Zaldiak besterik ez aurreratzeak ondorio txarrak ditu. Orain irabazitako peoia garesti aterako da.

6.c5,bZ-c4; 7.Dd4,g6.

Zaldi baten galeraren aurreran, zirikatze modua.

8.Ac4,Ag7; 9.De4,f5; 10.De2,c6; 11.Ah6,Da5 xa; 12.Zd2.

'Zc3' egokiagoa zen. Horrela, abantaila aiena-

tuko da.

12....Ah6; 13.De5,Dd2 xa; 14.Ef1,0-0; 15.c6 xa,e6; 16.Zf3,Db4.

Ikus koadroa. Beltzak estututa zeuden, baina bizirik. Damaren jokaldi honek, ordea, gainbeheran jarri ditu.

17.Dd4.

'Ae6 xa' dute mehatxu.

17....Da5; 18.d7,Ad7; 19.Dd7,fG-e8; 20.Ze5,Dc5; 21.Ae6 xa,Eh8; 22.Zf7 xa,Eg7; 23.Zd6 xa,Ef6; 24.Df7 xa,Eg5; 25.Ze4 xa,e4; 26.h4 xa,Eh5; 27.g4 xa.ma.

Beltzen irteera kaskarrak txurien nagusitasuna erraztu zuen.



Txakur salbatzaileak

Erreskate lanetan parte hartzeko txakur taldea sortu zen orain urtebete Nafarroan

Orain urtebete inguru, erreskate lanetan parte hartzeko txakur taldea sortu zen Nafarroan. Orduz geroztik, lanerako prestatzen ari dira hamar txakur eta euren gidariak Añorbideko txakurtegiari. Elorrioko taldeko bi kidek zuzentzen dute Nafarroan sortu den taldea. Oraingoan, simulakroetan bakarrik parte hartu badute ere, ahal bezain laster lanean hastea da nafarrok helburua.

Edurne Elizondo / Iruñea



Nafarroako taldea osatzen duten kideetako batzuk euren txakurrekin.

INAKI LASA

ORAIN dela urtebete eta hiru hilabete inguru, erreskate lanetan aritzeko txakur taldea sortu zen Nafarroan. Hamar txakurrek eta beren jabeek osatu zuten aipatu taldea. Egun, beste hainbat lagun hurbildu dira beraiengana euren txakurrekin, galtzen diren lagunak bilatzen ikas dezaten.

Hori da txakur hauen zeregin nagusia. Horretarako ari dira prestatzen. Hasierako hamar txakurren artean euskal artzain txakur bakarra da Iñaki Lasaren Aida. Hiru urte beteko ditu laster eta Iñaki Lasarekin da zazpi hilabete besterik ez zituenetik. «Iragarki bat ikusi nuen egunkari batean. Barañaingo familia batena zen, baina ez zuten nahi, eta nik hartu nuen». Ederki konpondu dira orduz geroztik Iñaki Lasa eta Aida.

Nafarroan prestatzen ari den taldearen jatorria Elorrioko dago, bertan ibiliak baitira Nafarroako taldea zuzentzen ari diren bi kideak. Carlos Perez Nafarroako taldeko lehendakaria da, eta bost bat urtez larunbatero joan izan da Elorriora bere txakurrekin ikasi eta lan egitera. Jose Espinosa gipuzkoarra ere, Nafarroako taldeko trebakuntza burua, Elorrioko ibilia da. Elorrioko taldeak hamalau urte daramatza lanean, eta arrakasta osoz, gainera.

Nafarroako taldea Añorbideko txakurtegiari entrenatzen da astero, asteazken eta larunbatero. Entrenamendu edo prestakuntzaren xede nagusia txakurrek galtzen diren pertsonak bilatzen ikastea da. Mendian, elurretan edo eroritako etxeen hondakinen azpian galdutakoak bilatzen egin beharko dute lan batez ere, baina euren helburua, oro har, galdu den oro bilatu eta aurkitzea da, edozein lekutan galduta ere. Zehazki, geldi dauden lagunak bilatzen ikasten dute txakurrek.


Aida-rekin batera, collie arrazako txakur batek eta zortzi artzain alemaniarrek osatzen dute Nafarroako taldea. Iñaki Lasak aipatu duenez, hala ere, txakur motak ez du zerikusirik, printzipioz edozein motatako txakurrek ikas baitezakete erreskate lanetan parte hartzeko. «Hala ere, ezaugarri bereziren bat izan behar dute, hau da, berezitasunen bat igarri behar zaie; lanaren bidez gara eta lan daitezkeen ezau-

garri bat izan behar dute txakurrek». Erraten dutenez, artzain txakurrek, edozein motatakoak —euskaldunak, eskoziarrak, alemaniarrek, — dira hobereak, «gizakiarekin harreman estuagoa izan dutelako beti».

Txakurrek dituzten ezaugarri berezien artean, euren usaimena da garrantzitsuen erreskate lanetarako, eta, hain zuzen ere, entrenamenduetan batez ere hori zorrotzen saiatzen dira. «Usaimen ikaragarria dute txakurrek, eta ezaugarri hori guztiz baliagarria da galduta dauden eta ikusten ez diren lagunak bilatzeko». Txakurrek, beraz, galduta dagoena ikusi ez baina usaintzen badu, usaina sortzen den lekua markatuko du, Iñaki Lasak azaldu digunez. «Ikusten badu, berriz, bilatzen ari zen pertsona hori dagoen lekuan geldituko da txakurra, eta zaunka hasiko da gidariak galdutakoa aurkitu dela jakin dezan».

«Taldea osatzen dute txakurrek»

• Bada, hala ere, Iñaki Lasak azpimarratu nahi izan duen zerbait, hau da, hamar txakurrek eta euren gidariak taldea osatzen dutela, «elkarrekin entrenatzen dira eta elkarrekin egiten dute lan». Nafarroako txakur hauek, hala ere, oraindik ez dute benetako erreskate batean parte hartu, simulakroetan bakarrik orain artean. Berriki, suhiltzaileekin batera egin dute simulakro bat. «Gure asmoa erreskate batean erabiltzen diren garraio bideak ezagutzeko zen, eta txakurrek horietara ohitzea. Helikopteroa, adibidez, garraio bide derik azkarrena da, eta mendi



Aida, Iñaki Lasaren txakurra.

INAKI LASA

stripuetan asko erabiltzen da, minutuek garrantzi handia baitute. Horregatik aurretik ibiltzeko da, bestela txakurrek izutuko lirakeke eta». Garraio bideetara ohitu ezezik «erreskate batean egon daitezkeen zaratak,

hotsak eta bestelakoak ere ongi ezagutu behar dituzte ez ikaratzeko, baita jende anitzen artean egoten ikasi ere».

Nafarroako taldea oraindik lanean hasi ez bada ere, hori da euren asmoa, eta beste hainbat herrialdetan bezala, taldekideak ziur dira euren partehartzea baliagarria izan daitekeela. Egun, Nafarroako Gobernuarekin harremanetan dira Nafarroako taldeko partaideak, erreskate lanetan parte hartzeko hitzarmena lortzeko asmoz.

«Usaimen ikaragarria dute txakurrek eta ezaugarri hori guztiz baliagarria da galtzen diren lagunak aurkitzeko»

«Prozesu luzea da txakurrei galtzen diren lagunak bilatzen irakastea»

PROZESU luzea da txakurrei galtzen diren lagunak bilatzen irakastea, eta prozesu horretan funtsezko xedea txakurrek dituen ezaugarri eta berezitasunak gidariaren zerbitzura jartzea da. «Txakurren ahalmenak gure mesedera erabiltzen ditugu. Horretarako irakasten diogu». Eta nola?

Giltzarria, txakurrek zerbait egiten duen bakoitzean jasotzen duen saria da. «Saria bilatuko du beti. Txakurrek, izan ere, ez du pentsatzen, eta galtzen diren —mugitzen ez diren, hobeto erranda— lagunak saria jasotzeko bilatzen ditu, horretarako bereziki eginiko entrenamenduan irakatsi dioten bezala».

Txakurrek bere nagusiarekin joan behar du entrenamendura hasieran, «arrotz batzuen eskuetan dagoela ikusten badu ez baitu ezer egingo».

Zerbait egin eta saria ematen dio jabeak. Ondoren, jabea beste norbaitekin joaten da, eta beste pertsona horrek ematen dio saria. Azkenik, jabeak bakarrik uzten du txakurra. Horretarako gakoa, «txakurren jokaera mekanizatzea da, hau da, egoera beretan txakurrek erantzun bera ematea».

Entrenamenduetan, bada, galduta edo ezkutuan diren pertsona batzuk bilatzen erakusten diote txakurrari, eta trukean saria jasotzen du. Honela, «egoera hori benetako denean, gauza bera egiten du».

Jabeak edo gidariak ematen dizkion aginduak betetzen ere ikasi behar du txakurrek, ongi ikasi ere, oso garrantzitsua baita. «Geldi erraten badu gidariak, txakurrek berehala gelditu behar du. Halaber, txakurrek gidariaren ahotsaren tonua ezberdintzen ere ikasi behar du. Hau da, batzuetan geldi erraten diogu, eta txakurrek jakin behar du geldi horrek arriskua dagoela esan nahi duela, eta kontuz ibili behar duela, baina, orobat, aurrera jarrai dezakeela. Beste batzuetan, geldi erran eta txakurrek badaki berehala gelditu behar duela. Txakurra eta gidaria, finean, taldea dira».

Txakurrek ere taldea osatzen dute. «Taldea osoa eramaten da lanera».

Erreskate batean aurki daitezkeen gauza eta egoerak ongi ezagutu behar dituzte txakurrek lanean hasi aurretik. «Txakur orekatua behar dugu erreskate lanetarako, lasai ez dagoen txakurrek ez baitu lanerako balio».

Txakur guztiak, halaber, ezberdinak dira eta bakoitzak bere berezitasunak ditu. Hori dela eta, entrenamendua ez da bat bera guztientzat. «Txakur bakoitzak bere ezaugarri edo ahalmen onenak garatuko dituen prestakuntza behar du». X

* ◆ **Patricio Hernandez** ◆ NUPeko irakaslea

«Surrealismoak liluratzen nau»

Patricio Hernandez Nafarroako Unibertsitateko irakasle eta Filologia eta Didaktika Departamentuko zuzendariak, *Insula* literatur aldizkariaren 592. zenbakia koordinatu du. *Imagen en libertad* izenburupean, Espainiako surrealismoa aztertzen du aldizkariaren zenbaki honen. *Insula* nazioartean batatzen da.

Edurne Elizondo / Iruñea


EMILIO PRADOS surrealisten figura aztertu eta goraiatu du Patricio Hernandezek berak koordinatu duen *Insula* aldizkariaren zenbakian. Aitortzen duenez, «surrealismoak liluratzen nau, nahiz eta batzuentzat lurperatua egon».

■ **Nola egokitu zaizu nazioartean zabaltzen den aldizkari honen zenbaki monografiko bat koordinatzea?**

Emilio Prados surrealitari buruz idatzi ditudan lanengatik aukeratu naute. Bera izan da Espainiako surrealismoaren aitzindaria eta bera da mugimendu honetako idazlerik adierazgarriena. Hainbat gauza argitaratu ditut berari buruz eta horregatik aukeratu naute. Emilio Pradosi esker hautatu naute erran daiteke.

■ **Eta zer iruditxo zaizu?**

Esperientzia polita izan da baina lan handia egin behar izan dut. Argitaratu baino urte eta erdi lehenago proposatu zidan aldizkariaren zuzendariak zenbaki hau koordinatzeko aukera. Dena den, estimulu bat izan da lan hau burutzeko niretzat. 36 orrialdetan zehar, surrealismoaren lengoia aztertu eta saiaturako gara, autore ezberdinak oinarritzat hartuz, Prados ezetik, Jose Maria Hinojosa, Luis Cernuda, Vicente Alei-



Nafarroako Unibertsitatean irakasle da Patricio Hernandez.

JOXE LACALLE

xandre, Federico García Lorca eta abar. Surrealismoaren lengoia erabili zuten margolari eta zinemagileek ere izan dute lekuerik aldizkariaren besteak beste, Picasso eta Luis Buñuel.

■ **Emilio Prados poeta da, beraz, 592. zenbakian protagonista. Zer azpimarratuko edo erranen zenuke idazle honi buruz?**

Espainiako surrealismoaren barruan idazlerik ezagunenetakoa da Emilio Prados, eta konpromezu handia hartu zuen mugimendu honen. 1920-22 urteetan Parisen Frantziako surrealisten harremanak izan zituen, eta 1924an manifestu surrealista plazaratu zenean, bat egin zuen berehala, surrealismoaren oinarri ideologikoa guztiz bat baitzetorren berak Alemaniako erromantizismo eta idealismoari buruz irakurritakoare-

kin. Sinbolismoaren ideia ere bere egin zuen.

■ **Aitzindaria izan zen Prados Espainiako surrealisten artean?**

Neurri batean bai. Lehenengo unean, 27ko belaunaldiaren barruan surrealismoaren alde argiro egiten duen lehen idazlea bera da. Gainontzeko autoreek olerkigintza popularrarekin jarraitzen dute, tradizionalarekin. Manifestua plazaratu baino urtebete lehenago, 1923an, Alemaniatik ideia berritzaileekin itzultzen da Prados eta olerkigintza metafisikoagoa egiten du. Une horretan, Madrilgo lkasleen Erresidentzian berarekin bizi diren beste idazleek barre egiten diote. Unibertsitatea utzi egiten du orduan eta aitak jarri zion inprentan hasi lanean. Surrealista delako beste idazleek asko kritikatu dute eta orduan amore eman eta utzi egiten du. Liburu pare bat baino ez du argitaratu eta bere lan surrealista ez da inor ohartzen. Bera zendu zen arte ezin izan dira bere lan asko publikatu. Bere testu surrealista 1990. urtean

argitaratu nituen nik. Ordura arte, testu horiei eta euren esanahiari buruz ez zen ezer idatzi.

■ **Insula aldizkariaren 592. zenbaki honetan hori egin duzu, hain zuzen, *El cuerpo desdoblado, la prosa surrealista de Emilio Prados* artikuluan?**

Bai. Malagako 27ko Kultur Zentroak argitaratutako liburuan jasotzen diren testuak oinarritzat hartuz, Emilio Pradosen prosa surrealista aztertu eta horien analisia egin dut. Prados idazle surrealisten artean aurreratua izan zen. Ondoren, 1929an, surrealismoaren alde agertu ziren argiro beste idazleak, Lorca, Alberti eta abar. 27ko belaunaldia surrealismorantz bideratu nahi izan zuen Pradosen baina berak ez zuen hori lortzeko indarrik edo karismarik izan.

■ **Surrealismoak zergatik erakartzen zaitu hainbeste?**

Surrealismoak liluratu egiten nau, nahiz eta askorentzat hilik eta lurperatua egon. Nire uestez, surrealismoak badu bertute bat, hau da, garai hartan oso zurruna

s o s l a i a

Patricio Hernandez Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) irakaslea da, baita Filologia eta Didaktika Departamentuko zuzendaria ere. NUPen ia hasieratik dagoela erran daiteke, unibertsitatean ailegatu zen bosgarren irakaslea baita bera.

Emilio Prados poeta surrealisten lanaren eta bizitzaren xehetasun guztiak ezagutzen ditu Hernandezek, gaian aditua baita. Bere tesia, hain zuzen, hari buruz egin zuen. Ez da hori, hala ere, Emilio Prados eta surrealismoari buruz idatzi duen lan bakarra. 1985ean Emilio Pradosi buruzko azterketa orokorra aurkeztu zuen. 1989. urtean, berriz, poetak 1936. urtean argitaratutako olerki surrealista aztertu zituen artikulua batean. Idazleari buruz egin diren kongresuetan ere hartu du parte.

Surrealistak ezezik, aztertu du beste gairik ere literaturaren barruan. 1995. urtean, hain zuzen, Euskal Herriko olerkigintzari —euskarazkoa zein erdarazkoa— buruzko antologia argitaratu zuen. Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean aurkeztu zuen bere liburua laz.

zen lengoaiari astindua eman zion. Orduko literatura oso mugatua zegoen eta gehiago zaintzen zuen alderdi estetikoak, benetan funtsezkoa zena baino. Mende honetan zehar, noski, beste mugimendu batzuk izan dira literaturan. 50eko edo 60ko hamarkadan, adibidez, literatura soziala dago. Mugimendu horrek herri xehearren zerbitzura jarri zuen literatura. Gaur egun, esperientziaren poetek arbuia egiten dute surrealismoa. Euren testuetan bizi duten errealitatea islatzen dute. Irakurlearengana hurbildu nahi dute. Idazkera surrealista, baina, ez du irakurle bilatzen, ez da komunikazioa bere helburua, ezagutza baizik.

«Surrealismoak badu bertute bat, hau da, garaiko lengoia zurrunari astindua eman ziola»

P A N E LUCRÁNDO

ZALDI ERDA

